

PRESTAKUNTZA-ATALAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-ATALA	LOKAL, INSTALAZIO ETA EKIPOEN ANTOLAKETA	Iraupena	70
		Espezifikoa	
Kodea	UF0822		
Lanbide-arloa	ITSAS ETA ARRANTZA-JARDUERAK		
Lanbide-eremua	Arrantza eta nabigazioa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Lonjen antolamendua	Maila	3
Prestakuntza-modulua	Lonjen kudeaketa	Iraupena	110
Modulua osatzen duten gainerako prestakuntza-atalak	Lonjako lanen antolaketa eta dokumentuen izapideak egitea	Iraupena	40

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-atal hau bat dator UF0288_3 gaitasun-ataleko LB1, LB2 eta LB3 lanbide-burutzapenekin.

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Instalazioen, ekipoen eta materialen kondizioetan, indarrean dagoen araudia edo aurrez ezarritako kalitate-plana betetzea eragotzen duten irregulartasunak hautematea.
- E11.1 Arrantzako produktuen lehorreratzean eta haiek lurtean manipulatzeko eta merkaturatzeko instalazioetan aplikatu behar diren eta arrantzako produktuak kontserbatzea bermatzen duten betebeharrak eta arau higieniko-sanitarioei buruz indarrean dagoen araudia deskribatzea.
- E11.2 Erakusketa- eta enkante-instalazioetako aireztapena eta klimatizazioa egokiak diren begiratzeko egin behar diren kontrolen zerrenda osatzea.
- E11.3 Produktuaren manipulazioa, erakusketa eta salmenta egiten den instalazioetako argiztapenean matxurak eta gehiegi berotzea ekiditeko, argiztapen hori nola aztertu eta zaindu behar den azaltzea.
- E11.4 Hustubideen funtzionamendua egiaztatzeke ikuskapen batean eman beharreko pausoen zerrenda egitea, hala, laneko eremuetan urak eta hondakinak ager ez daitezen.
- E11.5 Intsekturik eta karraskaririk izan ez agertzea bermatzeko zer atal bete behar diren identifikatzea, indarrean dagoen araudi higieniko-sanitarioa kontuan hartuta.
- A2: Instalazioak, ekipoa eta materiala higienizatzeko metodoaren exekuzioa eta produktuaren kontserbazio egokia bermatzen duten bitarteko erabilera kontrolatzea.
- E12.1 Arriskuen eta kontrol-puntuaren analisia indarrean dagoen araudia betez egiteko, sistemaren printzipioa.
- E12.2 Garbiketa produktuak nola biltegitatu behar diren eta haiekin nola jokatu behar den azaltzea, salgaiei eta haiek manipulatzeko, kontserbatzeko eta enkantean saltzeko erabiltzen diren elementuei dagokienez.
- E12.3 Sistemaren funtzionamendua eta produktuaren kontserbazioa bermatzeko mantentze-lan progresiboak behar dituzten ekipoa eta instalazioen zerrenda osatzea.
- E12.4 Arrantzako produktuen manipulazioan, kontserbazioan eta enkantean, produktu horien egoera higieniko-sanitario onena bermatzeko, haiei eragin diezaikekeen ur eta izotzari buruzko araudia identifikatzea.
- E12.5 Laneko zerbitzu informatizatuak ondo ibil daitezen, zerbitzu horiek behar duten arreta eta zaintza deskribatzea.

Edukiak:

1. Instalazioen eraikuntza-ezaugarriak eta produktuen tratamendua.

- Eraikinak eta lokalak. - Kokapena. - Zoladurak, estalkiak eta paramentu bertikalak. manipulatzeko eta lantzeko aretoak. Aireztapena, argiztapena. Ura et hustubideak. Higiene-zerbitzuak. Hondakinak suntsitzeko, eraldatzeko edo biltegitatzeko sistemak. Laborategiak eta pisu- eta neurri-sistemak.

2. Lonjetan eta jatorriko bidalketa-zentroetan antolaketa- eta zaintza-teknikak aplikatzea.

- Laneko ekipoa eta elementuak.
- Materialen erabilera.
- Makinek, tresnek eta instalazioek bete behar dituzten arau higieniko-sanitarioak.
- Makina garraiatzaileetako gailuak.
- Drainatze-sistemak.
- Ontzien ezaugarri orokorrak.

3. Materiala eta objektuak lortzeko, kontserbatzeko eta kontrolatzeko kudeaketa.

- Definizioak.
- Betekizun orokorrak eta bereziak.
- Neurri espezifikoak.
- Material berrien baimen-eskaerak: Izapideak. Irizpena. Baimena. Ontzien etiketatzea. Identifikazioa. Egiaztapena. Segimendua.

4. Instalazio, ekipa eta materialen segurtasuna eta higiena.

- Arriskuen eta kontrol-puntuaren analisisian oinarritutako autokontrol-sistemak.
- Gaixotasunak agertzen laguntzen duten faktoreak eta prebentzio-neurriak.
- Lehengaiekin kontaktuak dauden instalazioak, ekipoak eta ontziak garbitzeko eta desinfektatzeko teknikak.
- Garbiketarako produktuak: Ezaugarriak eta propietateak. Arriskuak. Erabiltzeko modua. Jarduera-denbora.

C atala: ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
 - 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
 - Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Erdi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo erdi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
 - Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagupenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Lonjen antolamendua.